



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteazkena 2008-07-02

VIURTEA 1.475.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Marimi Ugalde eta Marisa Alvarez herriko haurrez inguratuta. I. GARCIA

GARAGARDOAZ TOPA EGIN IKASTOLAREN ALDE

IRURA Irurako ikastolak eta Udalak antolatuta, etzi hasi eta igandera arte iraungo du 6. Garagardo Azokak; hamar garagardo mota izango dira aukeran 7

«Pello Odriozolaren egoera salatze» mobilizazioak

TOLOSA Kotxe karabana egingo dute gaur; Lizardikoek bat egin dute mobilizazioekin 3



Lizardi elkartekoek bat egin dute mobilizazioekin; Odriozola kide da. I.T.

Villabona KE futbol taldeak denboraldiaren balantze positiboa egin du

VILLABONA Maila guztietako entrenatzaileek «eskerrak» eman nahi izan dituzte 4-5

Tolosa CFren Paleta Txapelketan izena emateko epea zabalik

TOLOSA Txapelketak 40 urte beteko ditu aurten; partidak Berazubini jokatu dituzte 2



Ikusgai dagoen margoetariko bat.

Kultur tailerreko ikasleen lanak Aranburun daude ikusgai

TOLOSA Margoak, eskulanak, argazkiak, ... daude ikusgai 3

San Joan jaiek eman dutenarekin «gustura» azaldu dira

TOLOSA Pasa den astean bildu zen jai batzordea jaien nondik norakoak aztertzeko 2

Tolosa CFren Paleta Txapelketan izena emateko aukera, zabalik

Kirola » Aurten 40 urte beteko ditu txapelketak; partidak Berazubiko frontoian jokatuko dituzte.

ERREDAKZIOA

Aurten ere Tolosa CFk Paleta Txapelketa antolatu du. Bertan parte hartzeko interesa dutenek Berazubiko bulegoetan edota 943 6717 49 edota 656 71 92 63 telefono zenbakietan egin ahaliko dute. 10 euro ordaindu beharko dute bikoteko Tolosa CFko bazkideek eta gainerrakoei 20 euro. Partidak, ohikoa den bezala, Berazubiko pilotalekuan izango dira.

Aurten 40 urte beteko ditu Tolosa CFk antolatzen duen txapelketak. Pasa den urtekoari begiraturaz gero, Lontxok eta Nazabalek osatutako bikotea izan zen garaila; hauek Otermin eta Goitia izan zituzten aurrez aurre finalean eta 28an utzi zituzten.

Gutunak

Sanblasipiko Gazte Asanbladaren urteurrena

Joan den larunbatean, Sanblasipiko Gazte Asanbladaren X. urteurrena ospatu zen Otsabi Auzo Elkartean, izan ere, 1998ko udangazte talde bat elkartu eta bertan Gazte Asanblada bat antolatzea erabaki zuten, lehenengo ekimena Izaskun auzoko jaiak antolatzea izan zela. Baina, denbora pasa ahalaz Gazte Asanbladaren indarra gutxitzen joan zen, 2007ko udaran beste belaunaldi berri bateko gazte talde batek Sanblasipiko Gazte Asanblada berpizteari ekin zioten arte.

Ospakizunari hasiera emateko, goizean futbol partidu bat antolatu genuen. *Spunitan*, belaunaldi zahararen eta berriaren artean hiru futbol talde ezberdin osatuz. Giro ezin hobez gozatu ondoren, 50 pertsona inguru elkartu eta bazkaltzera pasa ginen, gure arteko ezberdintasunak alde batera utzita festa giro alaitsuari ekin, arratsaldean zehar luzatu ziren barre eta algarahaz dantza ezberdinekin.

Bazkal ostean, bina kontzertu izan genituen entzungai. 100 pertsona inguru elkartu ginen Otsabin eta Aretxabaletako The Crackers eta Beasaingo The Last Streight musika taldeekin, eta gaua sartzeko egunari amaiera eman genion.

Sanblasipiko Gazte Asanblada.
Tolosa.

San Joan jaien inguruko balantze positiboa egin dute

Gizartea » Pasa den ostiralean elkartu ziren jai batzordea osatzen duten kideak sanjoanen errepasoa egiteko.

INIGO TERRADILLOS

Aurtengo San Joan jaiak igarotzen dira, ohiko ekitaldiekin, baina berrikuntza batzuk ere izan dira. Behin jaiak bukatuta, jai batzordea bildu eta balantzea egiteko unea izaten da, aurtengo ekitaldiek izan duten harrera, berrikuntzak herritarrei gustatu zaizkien, datorren urtean egin beharreko aldaketak eta abar ikusteko. Pasan den ostiralean egin zuten bilera, eta jaietako egitaraua hartu eta ekitaldi ekitaldi errepasoa egin eta gero, orohar, gustura azaldu dira aurtengo jaiak utzitakoarekin.

San Joan Egunean «parte-hartze handia»

Aurtengo berrikuntzetako bat eskopetak izan dira; urtez urte eskopetariak eskopetak aldatzea lortu nahi dute, lehergaiak gabekoak erabiltzeko, eta horretarako Udalak diru laguntza emango du. Hiru konpainia izan dira eskopeta berriekin atera direnak, eta beste konpainia guzietan eskopeta berri bat behintzat bazegoen. «Erantzuna, beraz, oso ona izan da, eta badirudi, jendeak lehenbailehen aldatu nahi duela eskopetaz; gainera, lehen 18 urte behintzat izatea zen baldintzetako bat eskopetari bezala irretzeko, baina eskopeta hauekin 16 urterekin atera ahaliko da», azaldu du Joselu Andueza gazteria zinegotziak. 16-18 urteko gazte asko atera direla konpainietan ere gaineratu du, bai kartu txoak banatzen edota txiribituarekin, «eta hau oso ona da, San Joan Eguna ezagutzeko aukera dutelako. Aurten gainera astearte izanik, San Joan Egunean izan zen parte-hartzea azpimarratzekoa da, eta horregatik oso pozik gaude».

400 eskopetari baino gehiago atera dira, eta denen artean, konpainietan 500 lagun baino gehiago aritu ziren kaleak zeharkatzen. «Hurrengo urterako, esaterako, Iurreamendi auzoan konpainia berri bat sortu nahi dute, beraz, eskopetariena azken urteetan ondo funtzionatzen ari den kontua da».

Koadrilen Egunean ere giro ona
Parte-hartzearekin jarraituz, festetako lehen egunean ere hori izan zen nagusi. Koadrilen Eguneko bazkarian 700 lagun baino gehiago izan ziren, eta herriko elkarreetan ere beste hainbat koadrila bildu ziren, beraz, denera, 1.000 lagun baino gehiago. «Giro oso ona izan zen goiz goizetik. Txupinazioa ez zen Ostegun Gizenekora iritsi, baina



400 eskopetari baino gehiago irte ziren San Joan Egunean. ESTI EZEIZA

gertu ibili zen. Azken batean, egun oso polita izan zen», dio Andueza.

Ekitaldiak, orohar, «oso ondo»

Berto jaialdia izan da aurtengo berrikuntzetako bat, eta jende ugari bildu zen Zerkausian, eta hori ikusita jarraipena izango du datorren urtean ere. Bestalde, Carlos Peña eta Jose Luis Kortaren arteko desafioa izan zen aurtengo beste berrikuntzetako bat. «Denetarik entzun da ekitaldi horren inguruan; batzuk ez zeuden ados, batelak estropaden artean sartzea ere ez dute askok ondo ikusi, baina egia da berezia eta desberdina zela eta ikusmira sortu zuela; egia da baita ere ez zutela oso ondo neurtu desafioa, ez baitzen oso parekatua egon».

Musika kontzertuei dagokionez, Oskorri eta Abiba, esaterako, «oso arrakastatsuak» izan ziren. «Baina, Plaza Berrian izan ziren beste kontzertu batzuk ez zuten horrelako harrera izan». Jarraipena galtzen ari direnak zezenekin zerikusia duten ekitaldiak dira, «aurten ez baita jende gehiegirik joan hauek ikustera, beraz, honen aurrean hausnarketaren bat egin beharko dugu datorren urteari begira».

Bestalde, San Joan suarekin euria izan zen arazoa, baina azkenean ia aurreikusitako guztia egin ahal izan zen. Su artifizialei dagokionez, bi egunetan izan ziren ikusgai, «eta jendeari gustatu zitzaizkien. Mantendu beharreko

ekitaldi bat da, herritarrei gustatzen zaielako».

Sanjoanen aurreko asteburuan izan ziren gazteei zuzendutako ekitaldiei dagokionez, «skate eta graffiti lehiaketek, esaterako, harrera oso ona izan zuten, eta urteko urtera indartzen doazen ekitaldiak dira. Gainera, gazteek proposatutakoak dira, eta proposamen berriak jasotzeko prest gaude aurrera begira ere».

Datorren urtean ere, bide beretik

Orokorrean balantze baikorra egin dute jai batzordekoek, «gehienbat partaidetza erengatik, eta gazteengatik bereziki, eta hori Koadrilen Egunean eta San Joan Egunean nabaritu zen. Datorren urteari begira, gauzak beti daudela hobetzeko, baina bide beretik jarraitzeko asmoa dutela azaldu dute; «arazo txiki bat izango dugu egutegiaren aldetik, San Joan Eguna asteazkena izango baita, baina pentsatuko dugu horretan ere».

Langileentzat eta Musika Bandarentzat aipamen berezia

Bestalde jendea jaietz gozatzen dagoen bitartean jende asko dagoela egun horretan lan handia egiten duena ere gogoratu nahi izan dute jai batzordekoek, hala nola, garbiketakoak, udaltzainak. «Aipamen berezia merezi dute, Tolosako Musika Bandakoek bezala, izan ere, esaterako San Joan Egunean egun osoan egin ziren kalean musika eskainiz».

Laburrak

Argindar mozketak egingo ditu Tolargik astelehenean

ARGINDARRA » Tolosargik, «bezereei zerbitzu hobea emateko lanen ondorioz», euren instalazioetan hobekuntza eta mantenimendua lanak egiten ari da, eta horren ondorioz argindar mozketak egingo dituzte datorren astelehenean, uztailearen 7an, 08:15etik 11:30era. Pablo Gorosabel kaleko 2. zenbakian eta Soldadu kaleko 5. zenbakian izango du eragina.

Salamankara irteera antolatu du Harizpek

GIZARTEA » Harizpe jubilatuen elkarteak Salamankara irteera antolatu du irailaren 14tik 19ra egiteko. Irailaren 14an 07:30ean aterako dira Tolosatik. Egun horretan iritsiko dira bisita egingo dute La Albarca; egonaldian San Martin del Castañar, Ciudad Rodrigo, Bejar, Candelario, Miranda del Castañar, Granadilla, Hervas eta Las Batuecas bisitatuko dituzte. Bazkideek 226 euro eta ez bazkideek 231 euro ordaindu beharko dituzte izena emateko. Bakarkako gela nahi izanez gero 15 euro gehiago ordaindu beharko da. Irailaren 8ra arte izango da aukera.

Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarralde. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosaldeko bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurreamendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Pello Odriozolaren egoera salatzekeo mobilizazioak egingo dira gaur eta etzi

Politika » Parot doktrina ezarri diote preso tolosarrari; kotxe karabana egingo dute gaur iluntzean, Usabaldik abiatuta.

ESTI EZEIZA

Pello Odriozolak 20 urte daramatza espetxean, Espainiako hainbat kartzelatik igaro delarik dagoeneko. Gaur, ordea, «kondena osoa betetzen zuen berez, eta kalean egon behar zuen». Baina Espainiako Auzitegi Goreneko 197/2006 doktrina (Parot doktrina) ezarri berri diote, bizi arteko kartzela zigorra ezarritik. Lizardi elkarteko bazkidearen egoera salatzekeo asmoz hainbat ekintza antolatuta dute egun hauetarako ezker abertzaleak. Besteak beste, gaur iluntzean kotxe karabana izango da. Usabal kiroldegitik irteneko dira 20:00ak aldera, eta herritik barrena itzuli bat egingo dute. Etzizirako berriz, autobusa prestatu dute Bonxeko (Lugo, Galizia) espetxera joateko. Bertan aurkitzen baita orain euskal preso tolosarra. Interesa dute-



Lizardi elkarteko bazkideek beraien kide den Pello Odriozolaren egoera salatu dute. IÑIGO TERRADILLOS

nek ohiko lekuetan eskura ditzakete txartelak, bihar gauera bitartean.

Lizardikoako ere Odriozolarekin

Lizardi elkarteko bazkide da Odriozola, eta bertako kideek, aspaldiko euskalkantuen hitzak ekarri dituzte gogora, tolosarraren ka-

leratzea eskatzeko. Hala, Txato Agirrerren abestiak honela zioen, *Lau horma artean egin dute bizirik enterratu*. Lizardikoan esanetan, «Espainiako justizia erabat manipulatuak euskaldunon kontra nahietara darabilen politika bidegabearen biktima da Pello Odriozola. Kondena osoa bete eta

magia bihozgabe eta kupidagabe bihurtu duten justiziak beste 10 urtera bizirik enterratu egotera kondenatu dute».

Lizardiko kideen ustetan, «Euskal Herriaren askatasunaren alde egindako zinagatik luzatu diote Pellori bidegabekeria». Izan ere, odol delitirik izan ez arren, 20 urte

» MOBILIZAZIOAK

Uztailak 2, gaur

■ **20:00etan.** Kotxe karabana egingo dute Usabal kiroldegitik abiatuta.

Uztailak 4, etzi

■ **Goizean.** Bonxeko (Lugo, Galizia) espetxera joango dira autobusez. Interesatuak ohiko lekuetan eros ditzakete txartelak gaur eta bihar.

pasa ditu kartzelan. Honenbestez, «gehiagikeria» hau salatzeaz gain, elkartean alde banatan Odriozolaren askatasuna eskatzen duten pankartak jarriko dituzte. Honez gain, egoitzaren barnealdean, bere argazkia eta egoera azaltzen duten bi kuadro zintzilikatuko dituzte. Bestalde, zenbait erakunde deitutako ekimenetan parte hartzeko deia luzatzen diete tolosarreri.

Kantatuz hasi zuten Lizardiko kideek herenegun egindako agerraldia, eta baita bukatu ere, «gure bazkidea bahitu dezakeelako Espainiak, baina lizarditarren umorea ez, ezta Pellorena ere». Hone-tarako, Xabier Amurizaren abesti bat ekarri zuten gogora, non zioen *Mundua ez da beti jai / inoiz tristea ere bai / baina badira mila motibo / kantatzeko alai*.

Kultur tailerretako ikasleek egindako lanak ikusgai daude aste honetan zehar Aranburu Jauregian; hainbat arlo jorratu dituzte ikastaro hauetan.

Artisten eskola handia

E. EZEIZA

Batzuen esanetan artista jaiotzen da, beste batzuek diote berriz, urteetako lanaren ondorio dela. Batak edo besteak arrazoia izanda ere, aitortu beharra dago, Tolosako Kultur Tailerretan parte hartu dutenak hala direla. Hori frogatzeko, nahikoa da egun hauetan Aranburu Jauregira hurbiltzea. Izan ere, aste honetan zehar, ikusgai daude «tolosar artista» hauen lanak. Argazkigintza, egur lanketa, pintura, ehoziri eta patchwork, eskulan eta zeramika ikastaroetan gauzaturako artelanak daude jarrira erakusketan honetan.

Urte guztian zehar aritu dira lanean, orain, Aranburun ikusgai diren lanak egiteko. Denera, 100 lagunetik gora aritu dira Kultur Etxean ematen diren jardunaldietan. Jende gehiena pinturako eskoletara joan bada ere, gero eta arrakasta handiagoa lortzen ari dira beste arloak ere. Saio hauek urtero antolatzen ditu Udalak, eta edonork har dezake parte. Honenbestez, aurtengo ikasturtea amaitu bada ere, datorrenean ere izango da zer ikasirik. Izan ere, ikasle hauetako askok berezko sena ba-



Pintura izan da gehienek aukeraturako ikastaroa. ESTI EZEIZA

dute ere, beti ongi etortzen dira irakasleen gomendioak. Bestalde, artearen atal ezberdinak ezagutzen eta denbora pasatzeko aukera bikaina eskaintzen dute jardunaldi

hauek. Ikasteaz gain, jendea ezagutzeko, bakoitzaren jakituria ondokoei zabaltzeko bide dira Udalak eskaintzen dituen kultur tailer-rrak.



Besteak beste, argazkilaritza ikastaroa izan da Kultur Etxean. HITZA

Iragarki laburrak

LANA

■ **Begiralea.** Begirale tituludun persona behar dugu uztaileen 10etik 20ra, udaleku txikiak. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakietara: 628 94 72 53.

SALGAI

■ **Etxea.** Etxebizitza salgai, Tolosako Alde Zaharrean. Merkea, obra egin beharra dago. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakietara: 657 23 0011 edo 634 91 94 83.

Elkarrizketa

T. UGALDE, A. ETXANIZ, J. BATAIA, S. PASCUAL, M. ELIZEGI | Entrenatzaileak



«Jokalariei eskerrak eman beharrean gaude, oso giro onean aritu baikara»

Villabona » Amaitu berri dute batzuk mailaz igotzea lortu dute kadetek eta jubenilek gainera, baina denboraldi bikaina egin dute denek ere.

Sergio Pascual: Gainerako taldeen moduan, gure helburu nagusia ere, taldean geratzen zirenekin eta taldean zuzenean, talde polito bat sortzea eta ongi pasatzea zen. Helburu horretara, oso ongi heldu gurelako uste dugu. Juaniarekin eta biok jokalariek oso ongi ulertu dira haien artean, eta ongi ulertu dira. Jokalariek oso ongi ulertu dira haien artean, eta ongi ulertu dira. **Nola egin da kategoriatan lehenik?** A.E.: Gehienetan, aurreko entrenatzaileekin hitz eginen dugu, eta beste kategorietako taldeen partidak ikusteko aukerarik badugu, haietara joaten gara. Denboraldi amaieran, bertze begie jokalariek gurekin entrenatzen ez zireten dira, eta hor erabakitzen dugu jokalariek taldeerako egokiaz izango den edozei. **Ilusio handiarekin hartzen dute, kategoriaz igotzeko aukera dutela esaten zaien?** Joseba Bataia: Izugarri, Gainera, gurekin entrenatzena igotzeko direla esaten dieguenari, entrenatzen duetan dena ematen dute, hastu arte lan egiten dute eta gure esandako guztia egiten dute. Denboraldia aurrera doan bitartean, konfiantza hartzen doaz, eta jarraian ditek lasaiegi egiten dira. Hala ere, hauen jarrerak bikain izaten jarraitzen du.

bakarren bat kate motean lotu behar hara akaso, baina orokorrean, ez dugu arazo handirik izaten. **Taldeekin nahiz Villabonako kategorian artean lehiakortasunik bada?** M.E.: Futbolaren lehiakortasunak, deno gusatzen zaigu gure artean, eta haurrei, guri baino gehiago. Hala ere, denetik dago. Haur baten...

- » **HELBURUAK**
- » **Alebinak.** Taldea eratu eta taldean futbolaren nola aritu jabetzea.
- » **Infantilak.** Denboraldi hasieran, igotzea esan sartzea azari zuten.
- » **Kadetek.** Talde polito sortu eta ahalik eta emaitzarik onena lortu.
- » **Jubenileak.** Talde polito da, eta helburu nagusia, mailaz igotzea.

ARRATZOTERMIN
Denboraldia luze joan zaiela azaldu dute Villabona K.E. futbol taldeko entrenatzaile diren Mikel Elizegi (Villabona, 1978), Joseba Bataia (Villabona, 1983), Asier Etxaniz (Villabona, 1978), Sergio Pascual (Villabona, 1983) eta Txomin Ugalde (Villabona, 1967). Baina izan dute saririk, emaitza onak lortzeko gain, federazioaren eskutik, bi okugarri jaso dituzte, batetik 25 urte futbol lehiakortasunetik, eta, bestetik, Oinezko eskerrak delako orogaitik. Denboraldi amaiera sagardotegi osoan zuten.
Zer moduz joan da denboraldia? Mikel Elizegi: Alebinen taldean ez zuten arazo, Diputazioak mugak ezartzen dizkigu, hamabi haur bakarrik izan ditzaugu eta. Hasierako haurtapenean 40 haur baino gehiago azaldu izan zaizkigu, eta horietatik, 12 bakarrik aukeratu behar... Gainerakoak irtenbide b...

hara, eskola hirala da. Hasieratik esaten zale hauei zer dagoen; zer dagoen jakinda ere, haur batzuk negar egiten dute hauei izan ez direnean. Denboraldia emaitzarik dutek ez da onerokoluzuzuzen. Baina haurrak oso ongi moldatu dira haien artean, eskolatik etzuzuzuzen baita izaten erori zirenean eta zelaian kolatzen eta baloiari ematen asko ikasi eta aurreratu dute. **Asier Etxaniz:** Gure taldearen helburu nagusia, aldi, talde jator bat osatzen badago ere, denboraldi hasieran jomuga, igotzea fasean sartzea jarri genuen; eta behin, igotzea fasean ginetu, ahal genuena egitea. Denboraldia ongi hasi badu gurean ere, gure jokalariek fitxakoki jakes egin ziren, eta ez gara helburutara iritsi. Beste jokalariek pare batetik min ere hartu zuten eta beste fitxakotzen jo ziren. Hain guztia aldatzeko ez dute bade, denboraldia amaieran faktore guztiek izan dute eragina.



Alebinen taldeak, Mikel Elizegi (ezkerrean) buru dutela, asko ikasi du denboraldian zehar. »172A

Infantilekin, Joseba Bataia eta Asier Etxaniz (ezker-eskuin) denboraldi gogorra baina gustura. »172A

S. Pascual eta J. Bataia (ezker-eskuin) lagun, kadetek mailaz igotzea lortu dute. »172A

Jubenile azkenera arte sufitzeaz tokatu zaiz; entrenatzailea, Txomin Ugalde (erdian), pozik da. »172A

tzak ez dira emaitzarik gogoratzen, eta beste batzuk bertze, ez dute besterik buruan. Emaitzaren arabera haurrek hain pozo edo tristura erakusten dute. Egia esatera, lehiakortasunaren oinarriko konfiantza irabazi aurrerantz dagoen gaitasunak erakusten dituzte.

MIKEL ELIZEGI
Alebinen entrenatzailea

«Taldeen aritzen eta galdutako nahiz irabazirik aurkariak eskua ematen erakusten diegu»

JOSEBA BATAIA
Infantilen entrenatzailea

«Aukeraketa egitekoan taldeko helburuak lortzen lagunduko duten lehenetara izango dira»

TXOMIN UGALDE
Jubenilen entrenatzailea

«Jubeniletan jokatu eta askok uzten dute, lehenengo ikasketak dira, eta ondoren futbolak»

MIKEL ELIZEGI
Alebinen entrenatzailea

«Txikienek ez dute minik izanda ere ezer esaten, jokatu egin nahi dute eta minari eusten diote»

gaitasunak erakusten dituzte. **Federazioak, taldean neskek eta mutilak nahastuz egon behar du talde osan du. Zer orantzan jasoko zenuketele aste duzue?** J.B.: Mutil askorentzat oso arrazoi izango litzateke. Behin infantiletan direla, neskek in txantxetan hasteko gaitasunak daude, eta hasiera batean behintzat, neskek zerbitu gaitasun eginez gero, trufaka hasiko litzateke. Baina ikusi dugu beste taldeetara, lehenengo urtean, futbol Zuzenbideko taldean Anotako Herri Ilas taldeko taldean bi neska zuten zuten, eta mutilak bezala ikasten zuten, eta mutilak adina jokatu. **S.B.:** Entrenatzaileek ere, zer esan asko dugula uste dut horrelako kontu baten aurrean. Guk garrantzia kentzen badiegu, eta jokalariek arazo geroa bultzatzen badugu, askorago eta hobeki similituko dute horrelako zerbitu. **M.E.:** Nireak gazteagoak dira, eta ez dakit adimik zer esanik duen, baina orain urte batzuk izan zuten gurean neska bat, eta orduan behintzat, ongi hartu zuten. Uste dut, adimonean eskolan ere asendatzen dituen oihutirik daudela neska, eta zela horren arrazoi egiten. Baina futboleko ez da horrelakorik. Alebinetan taldeak mistok izan baditezke ere, infantilen kategorian ezinezkoa da. Eta alebinetan, geroako jokalariek formazioaren baten garaia jakinda, ez dituzte neska hartzen, taldean, izan genitzakeen neska, geroan taldean gabe geratuko builitzaile.

hitza elastiko berriak salgai haur, gazte eta helduentzat

elastikoarekin poltsa opari!

Tolosako HITZaren bulegoan eskuragarri.



Sanjoanetako torneoan hirugarren

BERASTEGI • Tolosako Sanjoanetako Txapelketan hirugarren geratu zen Berastegiko nesken taldea. Mutilen taldea berriz ez zen lehenengo postuetarako sailkatu. Irudian trofeoarekin Berastegiko neska aurkitzen

dira. Goran ezkerretik hasita: Ainara Ramos, Ane Salvarredi, Eukene Barriola eta Olaia Garaiburu. Beheran ezkerretik hasita: Oihana Ugartemendia eta Mireia Barriola. A. IMAZ



Angel Navas gidari zutela kobazuloen magia ezagutu zuten Gaztelun. HITZA

Gazteluko kobazulo historikoetatik barrena bidaia

ASIER IMAZ

Herriko Elkarreak iragan igandean Gazteluko kobazuloetatik barrena *Ibilbide Historikoa* antolatu zuen.

Angel Navas gidari zutela 08:30ean Elkarrearen atarian bildu ziren 15 lagun inguru jakinmina hasetzeko asmoz. «Linternak eta kaskoak hartu eta bertatik abitu ginen kobazuloen magia ezagutzera. Kobazulo batzuetatik ibili ginen eta nola ez, Txispiri kobazuloa ere bixitatu genuen. Angel Navasek ondo azaldu zizkigun garai bateko bizimodua; ehiza nola egiten

zuten, nola babesten ziren, sua nola egiten zuten...»

Txispiri kobazuloa

Txispiri kobazuloaren barnean garai bateko bizimoduaren berri jasotzeaz gain, bere garrantzi historikoaz hitz egin zien Angel Navasek, «aztarnak aurkitu baitzituzten bertan». Ibilbidea amaitzeko Herriko Elkarreak bazkaria antolatu zuen.

Elkarteko kideak gustura agertu dira adin ezberdinetako jendeak emandako erantzunarekin eta eskerrak eman nahi izan dizkiete.



Alurr dantza taldea Esloveniara

IBARRA • Alurr dantza taldeko kideak iragan astean bidaia berri bati heldu zioten. Oraingo honetan, Sloveniako Lent jaialdian hartuko dute parte. Maribor izeneko herrira autobusez irten ziren Ibarrik. Bi aste irauten duen Haur eta Gazteen Folklore Jaialdian musika, dantza, folklorea etabar aurkituko dituzte bidaian parte hartu duten 30 lagunek. 400 ekitalditik

gora antolatu dituzte Drava ibaiaren inguruan kokatzen den herrian. Alurrek bere dantza eta jantzi tradizionalak eman ditu bertan gure kultura erakusteko asmoz. Horretaz gain beste kulturetatik ikasteko aukera bikaina izango dute. Hasten den guztia amaitzen denez, bidaia uztailearen 12an amaituko dute. Egun horretan itzuliko baitira Ibarriara. A. IMAZ

Elduaingo ur eta zabor tasen inguruko epeak

A. IMAZ

Elduaingo Udalak jakinarazi duenez 2007ko ur hormidura zerbitzuari eta zabor bilteta zerbitzuari dagokien tasen errolda onartu berri dute.

Erroldak Udaleko idazkaritzan aurkitzen dira agerian. Desadostasunak adierazteko epea hilabetezko izango da eta erreklamazioak udaletxeko sarreran aurkeztu beharko direla jakinarazi dute.

Ordainaldiaren epeak

Udalak azaldu duenez 2007. urteko ur hormidura eta zabor biltetaren gaineko tasei dagokion ordainagiriaren borondatezko ordainaldia zabalik aurkitzen da eta abuztuaren 31n amaituko da.

Helbideratutako ordainagiriaren esandako kontu edo banketxetan kargatuko dira abuztuaren 4ean. Helbideratu gabekoak Udalaren bulegoetan egin ahaliko dira.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



Marimi Ugalde eta Marisa Alvarez Garagardo Azokaren kartelarekin. I. GARCIA

Ikastolaren alde antolatu dute seigarren Garagardo Azoka asteburu honetarako

Irura » Etzi hasi eta igandera arte iraungo du; Irurako Ikastolak eta Udalak aritu dira antolatzaile gisa.

IMANOL GARCIA

Seigarren urtez Garagardo Azoka antolatu dute Irurako Ikastolak eta Irurako Udalak. Etzi hasi eta igandera arte egongo da zabalik. Aurtengoan ere Ikastolaren alde egingo dute ekitaldia eta are bereziagoa izango da, Ikastola zein Udala, eta herri guztia ere esan daiteke, kilometroen urtean murgilduta baitago. Horrela nabarmendu dute Marisa Alvarez Ikastolako zuzendariak eta Marimi Ugalde alkateak.

Irurako Ikastolaren eraikin berria ordaintzeko dirua ateratzea

badu ere helburu nagusia, alkateak Garagardo Azokan sortzen den giroa bereziki aipatzen du: «Herri giroa sortzen da eta herrira etorri berri direnak aukera izaten du elkar ezagutzeko».

Bai Alvarezek eta bai Ugaldek herritarrek ematen duten laguntza nabarmen dute. 50 lagun inguru izaten dira lanean eta herritarrez gain, Anoetako Ikastolako irakasleak ere igandean izaten dira laguntza eskainiz. «Irurako herriak dagoeneko ohitura bat hartu du horrelako ekitaldietan parte hartzen eta laguntzen», dio Alvarezek.

Berritasuna: kontzertuak

Guztira 450 eserleku inguru izango dira herriko frontoian prest afaltzera joaten direnentzako. Laugarren aldia iango da pilotale-

kuak hartzen duela ekitaldia. Batez ere inguruko herrietatik joaten dira eta familia giroa izaten da nagusiki. «Laguntzen dutenei eta etortzen direnei ere eskerrak luzaten dizkiegu», azaldu dute antolatuzaileek.

Aurtun lehenengo aldiz, gaueko giroa luzatzeko, kontzertuak antolatu dira. Etzi, Ibaia folk taldearen emanaldia entzun ahalko da, 22:30etan hasita. Larunbatean bi emanaldi izango dira. Alde batetik, Iban bakarlarria ariko da, 23:00etan hasita. Ondoren, irurarrerz eta tolosarrez osatutako Nekro rock taldeak emango du kontzertua.

Garagardo Azoka etzi zabalduko da 19:00a aldera eta larunbatean eta igandean 18:00ak inguru irekiko dituzte ateak. Alvarezek eta Ugaldek deia zabaldu dute Garagardo Azokara joateko.

Euskara ikasten aritu direnentzako udalen diru laguntzak

Anoeta-Irura » Diru laguntzak izango dira ere unibertsitate ikastaroak egin eta udan euskara ikasiko dutenentzako.

tentzia-portzentajea eta klaseen aprobetxamendua.

Udako ikastaroetazako ere laguntzak

Bi udalek ere kaleratu dituzte bandoak udan egin daitezkeen ikastaroei buruz. Anoetan udan euskara ikasiko dute eta UEUko ikastaroak egingo dituztenei zuzendutako diru laguntzen berri kaleratu du. Irurak UEUko eta EHUko euskarazko ikastaroak egingo dituztenei zuzenduta. Anoetaren kasuan irailaren 15era arte egin daiteke eskaria eta Iruraren kasuan hilaren 17rako.

ERREDAKZIOA

Anoetako eta Irurako udalek bandoak atera dituzte euskara ikasten ari direnentzat zuzendutako diru laguntzei buruz. Anoetaren kasuan hilaren 15erako egin behar da eskaria eta Iruraren kasuan hilaren 17rako.

Bi udaletan eskabide-orria aurkeztu behar da, udaletxe bakoitzean lor daitekeena. Horretaz gain, nortasunaren egiaztagiriaren fotokopia aurkeztu behar da eta lanegoera frogatuko duten agiriak (langabezian bazaude, jubilatua bazara, eta Anoetakoan ikaslea bazara ere). Banketxe edo aurrezki kutxak emandako agiria, kontu baten titularrak zuela egiaztatzen duena eta matrikularen ordainketa-agiria ere, banku edo aurrezki kutxak emandakoa. Azkenik, euskaltegiko ziurtagiria ere aurkeztu behar da. Bertan adierazi beharko ditu euskaltegiak ikasleak ordaindu duen matrikula-kopurua, asis-

Esleri guztietan aurkeztu beharrekoa udaletxeko eskaera-orria, nortasun agiriaren kopia, lanegoera frogatuko duten agiriak, banketxe edo aurrezki kutxak emandako agiria kontu baten titularrak zuela egiaztatzen duena eta banku edo aurrezki kutxako ordainketa-agiria.

Horrez gain, Anoetan euskara ikasten dutenei euskaltegi ziurtagiria aurkeztu beharko dute eta UEUn ikastaroa egin dutenek bertako ziurtagaria. Iruran, dagokion unibertsitateak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko dute ikastaroa amaitzean.

Transernio Txapelketa etzi arratsaldean hasiko da Adunan

ERREDAKZIOA

Adunako pilota eskolako gurasoek antolatuta, V. Transernio Txapelketa hasiko da etzi herriko frontoian. Lau mailetako pilotariak ariko dira lehenian: benjamin, alebin, infantil eta kadetetan. Guztira 48 bikotek hartuko dute parte eta batez ere eskualdeko pilota eskolako pilotariak ariko dira.

Ostiraletan eta igandean egingo dituzte kanporaketak. 18:30ean hasiko dira ostiraleko partidak eta infantil eta kadete mailakoak ariko dira. 10:30ean hasiko dira igandean partidak eta benjamin eta alebin mailetakoak ariko dira.

Finalerdiak abuztuaren leian eta 3an iznago dira eta finalak Aduna-ko festetan egingo dituzte.

» MENUA

Zer edan

- San Miguel Nostrum.
- San Miguel.
- San Miguel 1516.
- San Miguel 0.0.
- Grimbergen Blonde.
- Grimbergen Dubble.

- Affigem Dubble.
- Kronenburg Dubble.
- Guinness.
- Paulaner.

Zer jan

- Saltxitxak.

- Krokatak.
- Irurako txistorra.
- Ukondoa.
- Bakailaoa tomatearekin.
- Irurako pastelxoak.
- Euskal pastela.
- Gazta eta irasagarra.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Ibarra.** Festa Batzordearen bilera egingo dute gaur udal batzar aretoan 20:00etan San Bartolome jaian antolokuntzarekin jarraitzeko.

■ **Alegia.** Alegiako Intxurre pilota eskolako denboraldi amaieran afaria egingo dute uztaillaren 3an. Afarira etortzeko pilota eskolakoek Alegiako Kultur eta Kirol Etxean eman behar dute izena.

■ **Tolosa.** Uztaillaren 6an, igandean, egingo den Jubilatuen Festarako izen-ematea egin daiteke Harizpe eta Iturriza jubilatutako elkartean. 65 urte izan eta Tolosan bizi direnentzat da.

Irteerak

■ **Tolosa.** Hilaren 10erako Iruñeko sanferminetara irteera antolatuko du Harizpek, Bazkaria Blanca de Navarran. Izen-ematea, elkartearen bertan.

Erakusketak

■ **Ibarra.** VIII. Kultur Lantegietako Artelanen Erakusketa zabalik aurkitzen da Benito Izagirre kultur etxean 09:30etik 13:30etara bitartean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9. 943 675118.
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzunik.



Haurrentzako parkea udaletxe aurrera

ZIZURKIL • Zizurkilgo San Millan eskolaren beharrak zirela-eta edukinontzi batzuk jarri behar izan zituzten eskolaren ondoan eskolak eman ahal izateko. Hori dela eta, bertan zegoen haurrentzako parkea kendu behar izan zuten. Egoera horren ondorioz, haurrak jolasparkekerik gabe geratu zi-

ren eta azkenean Udalak udaletxe aurreko plazan parke berri bat jartzea erabaki zuen (irudian ikusten da orain gutxi jarri duten parke berria). Hemendik aurrera, beraz, Zizurkilgo gaztetxoek badute non igaro euren jolas orduak. I.GARCIA

A Agurrak



Urte askoan!

Aitor Agirrebarrena. Gora gu ta gutarrak.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak
jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak